

## PROGRAMA: EKIMEN EKINTZAILEEN SUSTAPENA 2023

### Enpresak abian jartzeko eta sortzeko laguntzak

Xedea	Laguntzak, lehenengo urtean zehar, 2022ko urriaren 1etik eta 2023ko uztailaren 28ra bitartean sortu den enpresa bat martxan jartzeko eta horren funtzionamendurako, enpresaren forma juridikoa gorabehera.
Erakunde onuradunak	<p>Honako hauek eskuratu ahalko dituzte atal honetan ezarritako laguntzen onurak: Bizkaiko Lurralde Historikoko nortasun juridikoko enpresek (banakako enpresaburuak eta profesionalak barne), ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek.</p> <p>Horretarako, baldintza hauek bete behar dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2022ko urriaren 1aren eta 2023ko uztailaren 28aren artean alta emandako izatea, egun biak barne, Bizkaiko Foru Ogasuneko jarduera ekonomikoetan.</li> <li>• Egoitza soziala eta zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea. Eta, era berean, lantokia ere lurralde horretan izatea.</li> <li>• Alta ematen zaion jarduera ekonomikoa zuzenean lotuta egon behar da aurkeztutako negozio-planarekin.</li> <li>• Erakunde onuradunaren sustatzaileetako bat gutxienez:       <ul style="list-style-type: none"> <li>- egoitza gutxienez 3 hilabete jarraian Bizkaian izatea eta ekonomia-jardueraren altaren aurre-aurrekoak..</li> <li>- egiaztatu behar du langabezia, enplegu-hobekuntza (betiere, lan-kontratuak ez badu gaintitzen hitzarmenean ezarritako lanaldiaren % 40) edo aldi enplegu-erregulazioko espediente batek, enplegu-erregulazioko espediente batek eraginda dagoela enpresak ekonomia-jardueren gaineko zergan alta eman aurretik edo</li> <li>- eta autonomoen araubide berezian edo haren pareko mutualiteren batean alta ematea, 2022ko urriaren 1etik eta 2023ko uztailaren 28a arteko epean, egun biak barne. Azken baldintza hori ez zaie eskatuko elkartutako langile-kooperatibei, ezta lan-sozietateei ere, baldin eta araubide orokorrean sartuta badaude.</li> </ul> </li> <li>• Eta, gainera, sustatzaileetako batek, aurreko puntuan ezarritako baldintzak betetzen dituenak, banakako prestakuntza eta aholkularitza egin behar izan du 162/2022 Dekretuaren 1. ataleko erakunde onuradunekin 2022ko urriaren 1etik eta 2023ko uztailaren 28a arteko epean, egun biak barne.</li> </ul> <p>Diru-laguntzak jasotzeko eskabideak bidaltzeari dagokionez, pertsona sustatzaile batek ezingo du inola ere enpresa-proiektu baten baino gehiagotan parte hartu. 77/2021 Foru Dekretuaren eta 34/2022 Foru Dekretuaren kargurako diru-laguntza baten adjudikaziodun gertatu diren enpresek ezin izango dute parte hartu, ezta enpresa horien sustatzaileek ere.</p>
Diru-laguntzaren justifikazioa	<p>Ekonomia-jardueretan alta eman eta ondoko urtean zehar (urte bat, gehienez ere) Gizarte Segurantzari, autonomoen araubide berezian edo haren pareko mutualiteren batean egiten diren kotizazioen ordainketen egiaztagiria aurkeztuta egingo da.</p> <p>Halaber, onuradunak dagozkion zerga-betebeharrak eta tributu-beharrak betetzen dituela ere egiaztatuko da.</p>
Diru-laguntzaren zenbatekoa	<p>Diru-laguntzaren zenbatekoa 5.000 eurokoa izango da entitate onuradun bakoitzeko. Prestakuntza-ikastaroa eta aholkularitza egin ez duen baina Dekretuan ezartzen diren baldintza guztiak betetzen dituen bazkide edo sustatzaile bakoitzeko 2.000 euro igo ahalko da zenbateko hori; gehienez ere, bost bazkide edo sustatzaile.</p> <p>Erakunde onuradun bakoitzak gehienez jaso dezakeen diru-laguntza: 15.000 euro.</p>
Araudia	<p><a href="#">Bizkaiko Foru Aldundiaren 162/2022 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa,</a>      Diru-laguntzak emateko, norgehiagoka araubidea erabiliko da.</p>
Epeak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ekintzak egiteko epeak:</b> 2022ko urriaren 1ean hasiko da eta 2023ko uztailaren 28an amaituko da (biak barne).</li> <li>• <b>Eskabideak aurkezteko epea:</b> 2023ko martxoaren 13an hasiko da, 9:00etan, eta 2023ko martxoaren 31an amaituko da, 13:30ean.</li> </ul> <p>Eskabideak Internet bidez aurkeztu beharko dira, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtuala erabiliz, 39/2015 Legearen 16. artikularekin bat. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikora sartu behar da <a href="#">Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtuala erabiliz</a>.</p> <p>Bulego birtuala erabiltzeko, sistemak sinadura elektronikoa (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA, B@KQ...) eskatuko dizu.</p>